

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Alkatetzaren urtarrilaren 24ko 16/2023 Ebazpena, 2022-2023 ikasturtean hizkuntzak ikasteko dirulaguntzetarako deialdia egiten duena, norgehiagoka prozeduraren bidez

BDNS(Identif.): 672552

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/672552>).

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorri, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai, hemen: (www.infosubvenciones.es).

Lehenengoa. Onuradunak

Gutxienez urtebete lehenagotik udalerrian erroldatuta dauden 16 urtetik gorako pertsonak izango dira onuradunak, ama hizkuntzaz bestelako hizkuntza baten ikasketak egiten badituzte. Adina beteta izan behar dute dirulaguntzaren xede den ikastaroaren hasieran.

Bigarrena. Xedea

Edozein hizkuntza (atzeritarrentzat gaztelania ere) ikasteko matrikulak eragindako gastuak lagundu ahal izango dira diruz.

Ez dira diruz lagunduko joan-etorrien gastuak, ez eta mantenu eta ostatu gastuak ere, barne-tegien kasuan.

Pertsona bakoitzak egiten duen ikastaro eta barnetegi adina beka eska ditzake, baina ikastaro bakoitza behin bakarrik lagunduko da diruz.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak udalbatzaren 2020ko urriaren 26ko bilkuran onetsi eta urtarrilaren 8ko 2/2021 ALHAOn argitaratu ziren.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Euskara ikasteko ikastaroaren matrikularen prezioaren ehuneko 100; gehienez ere 200,00 euro.

Beste hizkuntza batzuk ikasteko ikastaroen matrikularen prezioaren ehuneko 75; gehienez ere 200,00 euro.

200,00 euroko gehieneko muga ez da aplikatuko dagozkion esleipenak egin ondoren aurrekontu partida agortzen ez bada. Kasu horretan, geratzen den kopurua modu proportzionalan banatuko da baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean, eta ez da gaitutako euskara ikasteko ikastaroen matrikularen prezioaren ehuneko 100, edo atzerriko hizkuntzak ikasteko ikastaroen matrikularen prezioaren ehuneko 75.

Aitzitik, esleitutako kreditua ez bada nahikoa aurkeztutako eskabide guztiei erantzuteko, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da guztiei erantzun ahal izateko.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak egingo dira oinarrien eranskinean ageri den ereduan, oinarrietan jasoriko dokumentazioa aurkeztu beharko da, eta aurkezteko epemuga 2023ko urriaren 1a izango da.

Seigarrena. Eskaerari erantsi beharreko agiriak

Ikastaroa egin den zentroaren egiaztagiria; datu hauek jaso behar ditu: hasitako eta amaitutako ikastaroa, ikastaroaren guttizko ordu kopurua eta ikasleak aprobetxatutako ordu kopurua (gutxienez ehuneko 80ko bertaratzea), ikastaroaren hasiera eta amaiera datak eta ikastaroaren guttizko kostua. Barnetegien kasuan, mantenu eta ostatu gastuak banakatuta azaldu beharko dira.

Salbuespen gisa, eta Osoko Bilkuraren balorazioaren mende, ehuneko 80tik beherako bertaratze ehunekoa onartu ahal izango da osasun-alarma egoeran.

Matrikularen fotokopia eta hura ordaindu izanaren egiaztagiria.

Diru sarrera egitea nahi den kontuaren erakundea eta IBANa eta titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada.

Dura, 2023ko urtarrilaren 24a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE